


# Nafarroako Mendialdea LGPren GIDAa (Leader ardatza)

*Erkidegoaren ekimena, Nafarroako Foru Erkidegoko landa-garapenerako  
programaren barnean (2007-2013)  
Leader Programako 4. ardatza ezartze aldera.*





## CEDERNA GARALUR ELKARTEA

1. Cederna Garalur Elkartearen bulego nagusia
2. Zangoza
3. Agoitz-Irunberri
4. Erronkari-Zaraitzu
5. Auritz-Erroibar-Aezkoa-Esteribar-Orreaga
6. Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi
7. Bidasoa
8. Leitzaran-Larraun-Ultzama
9. Sakana

# Sarrera

- > LEADER Europako Batzordeak sustatzen duen landa-garapenerako ekimena da. Programa Nafarroako Mendialdean ezartzearen ondorioz, hamaika proiektu eta jarduera berritzaile garatu da, lurraldea osatzen duten eskualdeek dituzten arazoei aurre egiteko.
- > Ekimen hori 1992az geroztik lantzen ari da Cederna Garalur Elkarteak Nafarroako Mendialdean. Esperientzia luzea duen Tokiko Ekintza Talde honek (TET), helburu komunak bilatu asmoz, eredu diren soluzio berritzaileak ezartzen ditu, gizarte-oinarri zabal baten parte hartzearekin.
- > Zehazki, Cederna Garalur Elkarteak sustatzen duen LEADER programaren helburua da landa-garapeneraren prozesuan sakontzea, lurraldeko natur eta kultur baliabideen, eta bertako produktuen balorizazioaren inguruan egituratutako estrategia original baten bitartez. Hori Nafarroako Foru Erkidegoko 2007-2013 aldirako Landa Garapenerako Programako (aurrerantzean LGP) 4. ardatzeko (LEADER) bost neurriak ezarriz egiten da. Aipatu programa Europako Batzordearen erabakiz onartu da, toki-garapenerako estrategiak ezarrita.
- > Horrekin jarduera eta enplegua sortzen duten ekintzak bultzatzen dira, bizi-kalitatea eta aukera-berdintasuna hobetze aldera -bereziki landa-eremuetako gazteei eta emakumeei zuzendua, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabilia-, eta ingurumena bereziki zainduz.

## (Leader ardatza)

# Aurkibidea

1. Finantza-zuzkidura	4. OR.
2. Zein da Cederna Garalur Elkarteak?	4. OR.
3. Zein da programak barne hartzen duen eremu geografikoa?	5. OR.
4. Programaren helburuak	7. OR.
5. Nork eska dezake laguntza?	7. OR.
6. Zein baldintza bete behar dira?	8. OR.
7. Zein proiektu mota bil daitezke deialdira?	9. OR.
8. Zein gastu eta inbertsio mota dira diruz lagungarriak?	11. OR.
9. Neurriak, eta ekintza eta proiektu motak	12. OR.
10. Zein gastu EZ dira diruz lagungarriak?	16. OR.
11. Bateriaezintasunak	17. OR.
12. Zein dokumentu aurkeztu behar dira?	18. OR.
13. Noiz aurkeztu behar dira eskaerak?	19. OR.
14. Non aurkeztu behar dira eskaerak?	20. OR.

# 1. Finantza-zuzkidura

Programa hau Nafarroako Foru Erkidegoko Landa-garapen eta Ingurumen Departamentuak onartu du, eta 9.017.375 euroekin hornitua dago (4.959.556 euro Europar Batasunarenak, eta 4.057.819 euro Nafarroako Gobernuarenak); kopuru hori, lagunduko diren proiektu ugari kontuan hartuta, ekarpen publiko eta pribatuekin osatu beharko da.



## 2. Zein da Cederna Garalur Elkarteak?

LEADER programak xedatutakoaren arabera, laguntzen kudeaketa "Tokiko Ekintza Taldeak" (TET) izenekoei dagokie. Berauek izanzen dira funts publikoak onuradunei eman edo banatuko dieten erakunde laguntzaileak. Horri dagokionez, Tokiko Ekintza Taldea Cederna Garalur Elkarteak da, Nafarroako Gobernuko Landa-garapen eta Ingurumen Departamentuarekin sinatutako hitzarmena betez.

**Irabazi-asmorik gabeko elkarte hori 1991n sortu zen, landa-garapen**



**integratua sustatze aldera, eta ehundik gora toki-entitate eta bestelako eragile sozioekonomiko biltzen ditu bere baitan.**

Cederna Garalur Elkartearen egitura honela dago osatuta: egoitza zentrala (Antsoain), eta zortzi garapen-agentzia (Nafarroako Mendialde osoan banatuta). Egitura horrek proiektu bakoitza gauzatzeko kudeaketa hurbilagokoa eta eraginkorragoa izatea ahalbidetzen du.

### 3. Zein da programak barne hartzen duen eremu geografikoa?

Cederna Garalur Elkarteak tokiko garapen programa ezarriko du 286/2008 Foru Aginduak onartutako jarduera-esparru geografikoan. Aipatu jarduera-esparru geografikoak honako 123 udalerririk hartzen ditu barne:

Kodea	Udalerrria	Kodea	Udalerrria
3	Abaurregaina	87	Elgorriaga
4	Abaurrepea	90	Eratsun
9	Oibar	91	Ergoiena
10	Altsasu	92	Erro
17	Anue (*)	93	Ezkaroze
19	Agoitz	94	Eslaba
20	Araitz	95	Espartza Zaraitzu
22	Arantza	98	Esteribar
24	Arano (*)	101	Ezkabarte (*)
25	Arakil	102	Ezkurra
27	Arbizu	103	Ezporogi
28	Artzi	110	Galipentzu
31	Areso	111	Galoze
33	Aria (*)	112	Garaioa
34	Aribe	113	Garde
37	Arruazu	115	Garralda (*)
40	Atetz	117	Goizueta
44	Bakaiku	118	Goñi
49	Basaburua	119	Gorza (*)
50	Baztan	123	Uharte-Arakil
52	Belaskoain (*)	124	Ibargoiti
54	Bertizarana	126	Imotz (*)
55	Betelu	127	Irañeta
58	Auritz	128	Izaba
59	Burgi	129	Ituren
69	Cáseda	130	Iturmendi
71	Gazteluberri (*)	131	Itza (*)
73	Ziordia	132	Izagaondoa
75	Ziritza (*)	133	Itzaltzu
81	Donamaria	134	Jaurrieta
82	Etxalar	135	Xabier
83	Etxarri (*)	136	Txulapain (*)
84	Etxarri Aranatz	137	Labaien
85	Etxauri (*)	138	Lakuntza
86	Egués (*)	140	Lantz (*)

(\*) Tokiko Ekintza Taldeak hautatzeko deialdiko arauak ezartzen dituen abenduaren 14ko 553/2007 Foru Aginduko 3. artikuluko f) atalaren arabera sartutako udalerriak.



Kodea	Udalerrria	Kodea	Udalerrria
144	Larraun	216	Zangoza
146	Leatxe	221	Doneztebe
149	Leitza	222	Sartze
151	Lerga	226	Sunbila
153	Lesaka	236	Ultzama
155	Ledea	237	Untziti
156	Lizoain	239	Urdazubi
158	Longida	240	Urdiain
159	Irunberri	241	Urraulgoiti
172	Elo	242	Urraulbeiti
181	Nabaskoze (*)	243	Urrotz Hiria
185	Otsagabia	244	Urrotz
186	Odieta (*)	245	Urzainki
187	Oitz	247	Uztarroze
188	Olaibar (*)	248	Luzaide
189	Olazti	250	Bera
194	Ollo	252	Bidankoze
195	Orbaitzeta (*)	253	Bidaurreta (*)
196	Orbara (*)	256	Hiriberri Aezkoa
198	Orontze	259	Igantzi
199	Orotz - Betelu	261	Èsa
203	Petilla de Aragon	262	Zabaltza (*)
209	Erromantzatua	263	Zubieta
210	Erronkari	264	Zugarramurdi
211	Orreaga	904	Irurtzun
212	Zare	908	Lekunberrin
213	Saldias		

(\*) Tokiko Ekintza Taldeak hautatzeko deialdiko arauak ezartzen dituen abenduaren 14ko 553/2007 Foru Aginduko 3. artikuluko f) atalaren arabera sartutako udalerrriak.

## 4. Programaren helburuak

Hiru helburuak honako hauek dira: batetik, Landa Garapenerako Estrategietan jasotako neurrien eta ekintzen bitartez, Nafarroako Foru Erkidegoko Landa-garapenerako Programaren 4. ardatza (LEADER) inplementatzen laguntzea; bestetik, gobernamentua hobetzea; eta, azkenik, landa-eremuetako gaitasun endogenoa mugiaraztea.

Ardatzaren xedea da herritarren bizi-kalitatea hobetzea, eta Nafarroako Mendialdeko ekoizpen-jardueren lehiakortasuna areagotzea (herritarrak bertan gera daitezen eta kanpotik jendea etor dadin), eta natur eta kultur ondarearen zaintzarekin bat etorriko diren produkzio-ekimen berriak sustatzea.



## 5. Nork eska dezake laguntza?

> Ondoren aipatutakoek jaso dezakete aurreikusitako laguntza:

### a) Ekoizpeneko proiektuak

(halakotzat hartuko dira diru-sarrerak sortzea helburu duten inbertsioak eta gastuak)



~ Pertsona bakar batek nahiz bik osatutako enpresak.

~ Merkataritza-sozietateak, eraldaketako nekazaritza-sozietateak, kooperatibak, lan-sozietate anonimoak, eta abar.

~ Tokiko entitate publikoak.

~ Nortasun juridiko aitortua duten beste entitate batzuk. Fundazioak, elkarteak, partzuergoak, sindikatuak, nekazaritza erakunde profesionalak, eta abar.

### b) Ekoizpenekoak ez diren proiektuak

(halakotzat hartuko dira berez jarduera ekonomikoa ez diren inbertsioak eta gastuak)

~ Pertsona fisikoak.

~ Tokiko entitate publikoak.

~ Nortasun juridiko aitortua duten beste entitate publiko batzuk. Fundazioak, elkarteak, partzuergoak, sindikatuak, nekazaritza erakunde profesionalak, kooperatibak, sozietate publikoak, eta abar.

# 6. Zein baldintza bete behar dira?

## Laguntzen araubide honetara heltzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Sozietatearen egoitza Nafarroako Foru Erkidegoan izatea.

2. Aurkeztuko den proiektuak honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:

~ TET batek proposatutako eta Nafarroako Gobernuak onartutako toki garapeneko estrategiaren barruan kokatuta egotea.

~ Toki garapeneko Estrategien helburuetakoren bat betetzen laguntzea.

~ Garatu asmo den jarduera Tokiko Ekintza Taldearen (TET) toki garapeneko estrategian (Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariaren ekainaren 6ko 286/2008 Foru Aginduak onartua) definitutako jarduera eremuan sartuta dauden udalerrietakoren batean kokatzea, Ekoizpeneko proiektuak direnean, baldintza hori salbuetsi daiteke komertzializazio fasean produktua merkatuan jarri behar izateagatik. Nolanahi ere, proiektuak, garatzeari dagokionez, zuzeneko lotura beharko du izan landa-lurraldearekin.

~ Hasierako egoera, eta jarduerak garatzeko mugarrak eta helburuak.

~ Inbertsio-plana, gastu orokorrak eta martxan jartzea.

2. a) Ekoizpeneko proiektuak direnean, aurrekoetz gain:

> Inbertsioak eta gastuak arlo teknikoan, komertzialean, ekonomikoan eta finantzarioan bideragarriak direla frogatu beharko da. Besteak beste, honako hauek deskribatuko dira:

~ **Marketing-plana:** merkatu-azterketa, merkataritza-helburua eta salmenten aurreikuspena, prezioak, banaketa eta merkaturatzea.



~ **Eragiketa plana:** ekoizpen-prozesua, maila teknologikoa, baliabide materialak (makineria, tresneria, ibilgailuak...) eta giza baliabideak, ekoizteko gaitasuna, hornikuntza, biltegitratzea..

~ **Ekonomi eta finantza-plana,** behin-behineko ustiapenaren kontua, behin-behineko balantzea eta finantziario iturriak.

> Enplegua sortzea edo dagoenari eustea.

Europako Batzordeak mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainari buruz egindako 2003/361/CE Gomendioaren arabera, enpresa txikia izatea. Kooperatibei, eraldaketako nekazaritza sozietateei, lan sozietate anonimoei, nahiz nekazaritzako produktuak ekoizten, merkaturatzen eta/edo eraldatzen dituen lan elkartuko beste edozein entitate juridikori dagokienez, 750 langile baino gutxiago dituztenak, eta 200 milioi eurotik beherako negozio bolumena dutenak izan daitezke onuradunak.

3. Laguntza jasoko duten inbertsioak laguntza eskaera aurkezteko data baino lehen hasi ez izana. Ondoren aipatzen diren eskaera egin aurreko inbertsioak edo gastuak soilik lagunduko dira diruz (betiere, 2007ko maiatzaren 7ko mugarekin):

> Langile teknikoaren ordainsariak.

> Bideragarritasun-azterketaren gastuak.

> Materialak erostea.

4. Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan egunean egotea.

Eta bereziki:

5. Turismo-jarduerekin, ostatu emateko zerbitzuekin, denbora librearekin, aisiarekin eta antzekoekin lotura duten proiektuetan, Vianako Printzea Erakundea - Turismo eta Kultura Departamentuaren aldeko txostena aurkeztu beharko da.

6. Lehen sektoreko jarduerekin lotura duten proiektuetan, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuaren aldeko txostena aurkeztu beharko da.

8. Jarduera berria, osorik eta zati batean, Batasunaren intereseko lekuren batean garatzen bada, Cederna Garalur Elkarteari idazkia igorri beharko zaio leku horren erabilera- eta kudeaketa-planarekin bat datorrela adierazteko.

Ez dute laguntzarik jaso ahal izanen diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 13. artikuluko 2. puntuan jasotako egoeraren batean daudenean.



## 7. Zein proiektu mota **bil daitezke** deialdira?

**Neurri hauen laguntzak jaso ditzaketen proiektuak edo ekintzak honako estrategia hauek lortzera bideratu beharko dira:**

**a.** Lehiakortasunari buruzko toki-garapeneko estrategietan.

**b.** Ingurumen eta landa-eremuei buruzko toki-garapeneko estrategietan.

**c.** Bizi-kalitateari eta landa-eremuen dibertsifikazioari buruzko toki-garapeneko estrategietan.

**C.1** Mikroenpresak sortzea eta garatzea (ekintza zehatzen zerrenda barne).

**C.2** Turismo-jarduerak sustatzea (ekintza zehatzen zerrenda barne).

**C.3** Ekonomiarentzako eta landa-eremuetako biztanleentzako oinarritzko zerbitzuak (ekintza zehatzen zerrenda barne).



**C.4** Landa-eremuetako herriak berritzea eta garatzea (ekintza zehatzen zerrenda barne).

**C.5** Landa-eremuetako ondarea zaintzea eta hobetzea (ekintza zehatzen zerrenda barne).

**C.6** 3. ardatzean parte hartzen duten eragile ekonomikoak prestatzea eta informazioa ematea. Ekintza honen barnean dira toki-erakundeei, irabazi asmorik gabeko erakundeei,

enpresei, familia-ustiapenei eta 3. ardatzeko helburuak lortzen diharduten beste eragileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak (ekintza zehatzen zerrenda barne).

1698/2005 Arauak (EB) ezartzen duenaren arabera, laguntza hauetan ez daude sartuta heziketa arautuko planak eta klaseak eta/edo bigarren mailako edo goi mailako programetako nahiz ohiko hezkuntza sistemetako klaseak.

Neurriak, ekintza motak eta proiektuak gida honetako 10. puntuan zehatzen dira.

Halaber, integratuak ez izanik ere LGP 1., 2. eta 3. helburuak betetzen laguntzen duten ekintzak hautagarriak izanen dira.

Oro har, jarduerak Erkidegoko, Estatuko eta foruko markoetan eta xedapenetan jasotako salbuespenak eta mugak errespetatuko dituzte sistematikoki.

# Proiektu berritzaileak

LEADER fondoen ezaugarri orokorra da proiektu berritzaileei (produktiboak eta ez produktiboak) finantziazioa ematen diela; betiere, proiektuak garatuko diren eskualdeetako natur baliabideak, giza baliabideak, ondarekoak eta kulturalak balorizatzen eta sustatzen badituzte.

Proiektu horien bitartez honako helburu hauek lortu nahi dira:

- > Ezagutza eta teknologia berriak erabiltzea, lurraldeetako produktuen eta zerbitzuen lehiakortasuna areagotze aldera.
- > Landa-eremuetan bizi kalitatea hobetzea.

- > Tokiko produktuak balorizatzea, bereziki, talde-ekintzen bitartez, ekoizpen egitura txikiei merkaturako sarbidea erraztuz.
- > Natur eta kultur baliabideak balorizatzea.
- > Aukera-berdintasuna.

Proiektuen jardute-eremuetako eskualdeetakoak izan beharko dute.



LEADER fondoen ezaugarri orokorra da proiektu berritzaileei finantziazioa ematen diela; betiere, proiektuak garatuko diren eskualdeetako natur baliabideak, giza baliabideak, ondarekoak eta kulturalak balorizatzen eta sustatzen badituzte.

Oro har, jarduerak Erkidegoko, Estatuko eta foruko markoetan eta xedapenetan jasotako salbuespenak eta mugak errespetatuko dituzte sistematikoki.

## 8. Zein gastu eta inbertsio mota dira **diruz lagungarriak**?

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 28. artikulua araberaz, diru-laguntza jaso dezakete diru-laguntzaren xede den jardueraren izaerarekin bat datozenak, eta ezarritako epean egiten badira. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuetan, erosketa-kostua inoiz ez da izan merkatuko balioa baino handiagoa. Toki-garapenerako estrategiek honako gastu eta inbertsioak lagun ditzakete diruz:

### a) Ekoizpenekoak diren jardueretarako:

- > Lursailak erostea (nekazaritzako produktuak balorizatzeko izan ezik) eta egokitzea, proiektuaren orientazioarekin bat etorrira (ezarritako gehienezko ehunekoen barruan).
- > Eraikinak eraikitzea, erostea, egokitzea edo hobetzea, proiektuaren orientazioarekin bat etorrira (ezarritako gehienezko ehunekoen barruan).
- > Ekipamendu ondasunez hornitzea: makineria eta ekipu berriak erostea; horren barne, euskarri eta aplikazio informatikoak, makineria eta ekipoetarako instalazioak, tresneria eta subentziona daitezkeen inbertsioen ondasunen gaineko eskubideak (ibilgetu ez-materiala).
- > Barne-garraiorako elementuak (betiere, erosiko diren xederako erabiltzen badira, eta, gutxienez, bost urtetarako konpromisoa hartzen bada).

### b) Ekoizpenekoak ez diren jardueretarako,

a) hizkian jasotakoez gain, proiektuaren izaeratik, edo promozioaren berezitasunengatik, subentziona garrantzatu jo daitezkeenak. Zehazki, honako hauetarako gastuak edo inbertsioak jasotzen dira:

- > Laguntza teknikoa.
- > Merkatu azterketak.
- > Kultur eta/edo natur ondarearen inbentarioa, babesa, leheneratzea eta aprobetxamendua.
- > Landa-garapenerarekin lotura duten izaera orokorreko promozio ekintzak eta kultur hedapenerako ekintzak.
- > Teknologia besterentzea.

### c) Landa-eremuetako bizi-kalitateari eta eremu horien

dibertsifikazioari buruzko toki-garapenerako estrategien arabera, prestakuntza eta informazio jardueretarako subentziona daitezkeen gastuak honako hauek dira:



- > Beharrezkoak diren materialak eta ekipak.
- > Bidaiak eta dietak.
- > Irakasleak eta adituak kontratatzeko gastuak, eta pertsonal propiorako gastuak.
- > Erakunde kudeatzaileak lehentasunezkoztat jo dezakeen beste edozein; betiere, gastu hori LGPren 3. ardatzean esku hartzen duten eragileen prestakuntza eta informazio ekintzak garatzeko helburuarekin lotura duen proiektu baten ondorioa bada.

**Subentziona daitezkeen kostu orokorrak, eta abian paratzeak** (diruz lagun daitezkeen inbertsio osoaren % 12ko gehienezko mugaren barnean) honako hauek dira:

- > Notariokoak eta erregistrokoak; proiektuan aurreikusitako jarduerara abian paratzeak sortutakoak.
- > Baimenak, patenteak, lizentziak eta administrazioak eskumenak ematea.
- > Ekonomi azterketak, bideragarritasunekoak, merkatukoak, lege- edo finantza-aholkularitzakoak, adituenak, eta arkitektoen, ingeniarien eta aholkularien ordainsariak, proiektuak idazteagatik gastuak, obratuzendaritzakoak, txostenenak eta planenak.
- > Kalitatea bermatzeko ziurtagiri sistema ezartzea.

Nola inbertsioetan, hala martxan jartzeko gastuetan, erakunde kudeatzaileak lehentasunezkoztat jo dezakeen beste edozein ekintza finantza daiteke, betiere, onuradunak proposatu duen toki-garapenerako strategiako proiektu baten ondoriozkoa bada.

## 9. Neurriak, eta ekintza eta proiektu motak

Neurriak eta ekintzak	LGPK eman dezakeen gehienezko laguntza	LEADERen* laguntza muga
	<i>NFEko (2007-2013) LGPren 4. ardatzeko (LEADER) neurriak arautzen dituzten Arauetako 10. artikuluaaren arabera</i>	(Eurotan)
<b>411. Lehiakortasunari buruzko tokiko garapen-estrategiak:</b>		
<b>411.1</b> Nekazaritzako artisau produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko zerbitzuak sortzeko laguntza (tokiko esku-langintzari lotutako salmenta puntuak), modu integratuan eta berritzailean, prozesu osoa barne hartzen duten ekintzak; hasi ekoizpenetik, eta merkaturatze eta forma berrietaraino (Internet, eta abar).	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>411.2</b> Nekazaritzako artisau produktuak merkaturatzera, produktu sorta aukeratzera, produktu horiek merkaturatzean posizionatzera, eta ohiko hurbiltasuneko merkatuak zabaltzera zuzendutako ekintzak antolatzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>411.3</b> Lankidetzarako eta produktu alternatiboko enpresa berritzaileak sortzeko proiektu pilotuak: nekazaritzako elikagaienak ez direnak, organikoak, zinegetikoak, mikologikoak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>411.4</b> Tokiko nekazaritza sektorean gizartea eta kultura sustatzeko proiektuak; tokiko eta kultur baliabideei buruzko informazio ekimenak, dibertsifikazioa bultzatzeko, eta emakumeen eta gazteen parte hartzea errazteko.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>411.5</b> Ekoizpen ekologikoari eta ekoizpen integratuari sostengua: Ekoizpeneko proiektu kolektiboak, eraldaketa eta komertzializazioa.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>411.6</b> Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basogintzaren kudeaketan ohiko jarduerak onak bultzatzen dituzten proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>412. Ingurumen eta landa-eremuei buruzko tokiko garapen-estrategiak</b>		
<b>412.1</b> Natur ondarrerako kudeaketa-plan kolektiboak lantzea eta martxan jartzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>412.2</b> Batasunaren intereseko lekuetako natur ondarea kudeatzeko proiektuak sarean paratzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>412.3</b> Batasunaren intereseko lekuetako (EIL) eta horien eraginpean dauden eremuetako paisaia eta landa ondarea zaintzeko proiektu pilotu kolektiboak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>412.4</b> Ekintza berritzaileak diseinatzea, Natura 2000 sareko zonaldeetan eta horren eraginpean dauden eremuetan paisaia zaintzera bideratuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000

Neurriak eta ekintzak	LGPK eman dezakeen gehieneko laguntza	LEADERen* laguntza muga
<b>412.5</b> Tokiko natur ondare txikia zaintzeko eta berreskuratzeko lehiaketa.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>412.6</b> Natur baliabideak zaintzeko, berreskuratzeko eta hobetzeko proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>412.7</b> Ingurumen heziketako eta interpretazioko proiektuak, jarduera onak eta berrikuntza.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>412.8</b> Energia berriztagarrien erabilpena eta birziklatzea erakusten duten proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>412.9</b> Natur ondarea kudeatzeko proiektuak sarean paratzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>412.10</b> Tokiko Agenda 21en eta /edo garapen integraleko planen ondorio diren jarduera berritzaileak eta erakusgarriak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 40 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>413</b> Bizi-kalitateari eta landa-eremuen dibertsifikazioari buruzko toki-garapeneko estrategiak:		
Ekintza honek 3. ardatzeko 312, 313, 321, 322 eta 331 neurriak garatzen ditu.		
<b>312</b> Mikroenpresak sortu eta garatu:		
<b>312.1</b> Enpresa kultura eta izaera sustatzeko ekimenak: lehiakortasuna hobetzeko enpresa diagnostikoak, berrikuntza bultzatzea, jardunaldiak eta mintegiak, enpresa informazioa zabaltzea, sentsibilizazioa enpresa kulturaren eta sormenaren arloetan.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>312.2</b> Enpresa proiektuak sortzea: lurraldeen baliabide propioak baliatuz, izaera berritzailekoak, eta/edo enplegu hobi berrietara atxikiko direnak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>312.3</b> Banakako proiektuen lehiakortasun mugak gaindituko dituzten taldeen enpresa proiektuak sortzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>312.4</b> Lankidetzak publiko eta pribatuko ekoizpen proiektuak sortzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>312.5</b> Enpresa sortu berriak edo enplegu berriak sortuko dituzten enpresak finkatzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>312.6</b> Sareak sortzea eta enpresen arteko lankidetzak: ETEko lankidetzak proiektuak, eta enpresa ehuneko sare lanak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>313.</b> Turismo jarduerak sustatzea:		
<b>313.1</b> Landa eremuetan eta/edo Nafarroako mendi eremuetan kokatzen diren turismo zerbitzuen eskaintzarekin lotura duten turismo zerbitzuak garatzea eta/edo merkaturatzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>313.2</b> Turismo xedeko kalitate plan batera biltzea: kalitatea kudeatzeko sistemak diseinatu eta ezarri.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000

Neurriak eta ekintzak	LGPK eman dezakeen gehienezko laguntza	LEADERen* laguntza muga
<b>313.3</b> Turismo produktuak sortu, kudeatu eta merkaturatu, hala dagokionean sostengu azpiegitura txikiak abian paratzeko aukera kontuan hartuz, besteak beste: informazio guneak eta turismo guneak seinaleztatu, eta/edo aisiarako azpiegitura txikiak, natur eremuetarako eta ostatu emateko gaitasun txikia duten azpiegiturarako sarbidea ematen dutenak, kasu.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>313.4</b> Landa eremuan kokatuta dauden turismo produktuen kudeaketa-plan kolektiboak landu eta abian paratu.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>313.5</b> Lankidetzeta eta turismo produktuak sortzea, merkatuan leku bat izate aldera.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>313.6</b> Landa eremuan kongresuen turismoa, ekitaldiak eta pizgarriak sustatzea.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>321</b> Landa eremuetako ekonomiarentzako eta herritarrentzako oinarrizko zerbitzuak		
<b>321.1</b> Herri txikietan, herritarrei zuzendutako erabilera anitzeko ekipamendu txikiak sortzea eta egokitzea: beste proiektuak sustatzeko gaitasuna duten proiektuekin bateragarriak izan daitezkeen toki proiektuak, arazo horizontalei heltzeko proiektu pilotu berritzaileak.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>321.2</b> Kudeaketa plan kolektiboak, herritarrentzako kultur eta aisia jarduerarako, tokiko erabilera anitzeko ekipamendua baliatuta.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>321.3</b> Landa eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, eta emakumeek landa bizitzako eta ekonomiako arlo guztietan parte hartzea bultzatzeko ekimenak.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>321.4</b> IKTbak erabiltzea errazteko, eta horien bitartez zerbitzuak hurbiltzeko jarduerak.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>321.5</b> Landa eremuaren eta hiri eremuaren osagarritasuna bultzatuko duten proiektuak.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>321.6</b> Tokiko Agenda 21en eta /edo garapen integraleko planen ondorio diren eskualde jarduerak.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>321.7</b> Kulturen arteko harremana sustatuko duten jarduerak, gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua duten kolektiboak integratzeko.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>321.8</b> Sustatzaile izateko eta enpresa ehuna sustatzeko zerbitzu kolektiboen inguruko ekimenak eta proiektuak, enpresa zentroetatik eta telezentroetatik bultzatuta.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>322.</b> Landa herriak berritzea eta garatzea:		
<b>322.1</b> Landa eremuaren eta hiri eremuaren osagarritasuna bultzatuko duten proiektuak.	Èkoizpeneko proiektuak: % 30 Èkoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000

Neurriak eta ekintzak	LGPK eman dezakeen gehieneko laguntza	LEADERen* laguntza muga
<b>322.2</b> Garapenerako plan integralak egiteko eta/edo herrigune historikoak dinamizatzeko laguntza teknikoa.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>322.3</b> Garapenerako plan integralen eta/edo herrigune historikoak dinamizatzeko planen ondorio diren jarduerak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>322.4</b> Tokiko Agenda 21en eta/edo garapen integraleko planen ondorio diren eskualde jarduerak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>323 Landa eremua zaintzea eta hobetzea:</b>		
<b>323.1</b> Tokiko natur ondare txikia eta arkitektonikoa zaintzeko eta berreskuratzeko lehiaketa.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>323.2</b> Natur ondarea eta ondare arkitektonikoa zaintzeko, berreskuratzeko eta hobetzeko proiektuak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>323.3</b> Kultur ondareko baliabideak kudeatzeko eta sustatzeko plan kolektiboak lantzea eta horiek abian paratzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>323.4</b> Kultur ondarea eta ondare arkitektonikoa kudeatzeko proiektuak sarean paratzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>331 Ardatzean parte hartzen duten eragile ekonomikoak prestatzea eta informazioa ematea.</b>		
Ekintza honen barnean dira toki-erakundeei, irabazi asmorik gabeko erakundeei, enpresei, familia-ustiapenei eta 3. ardatzeko helburuak lortzen diharduten beste eragileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak sartzen dira.		Honako proiektu mota hauek bereizten dira
<b>331.1</b> Lan munduan txertatzeko prestakuntza: sensibilizazio ekintzak, prestakuntza teknikoa, eta prestakuntza zonaldean egon daitezkeen jarduera aukera berriei erantzunen dieten trebetasunetan.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>331.2</b> Lehiakortasuna hobetzeko prestakuntza: iraupen laburreko moduluak, premia zehatzeen araberakoak.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>331.3</b> Negozio txikia kudeatzeko landa gela.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>331.4</b> Ikaskuntza elektronikorako sostengua, IKTBetarako sarbidea izateko, eta telezerbitzuak eta telelana erabiltze aldera.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>331.5</b> Jarduera lagungarriak garatzeko prestakuntza, FEADER programako neurriak baliatuz.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000
<b>331.6</b> Ideia bankuak eta proiektu eredugarriak kudeatzea eta zabaltzea.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	60.000
<b>331.7</b> Prestakuntza eta sensibilizazioa egnera eta aukera berdintasunean.	Ekoizpeneko proiektuak: % 30 Ekoizpenekoak ez diren proiektuak: % 70	24.000

## LEADERen\* laguntza muga:

Inbertsio proiektuak	60.000 euro
Laguntza teknikoko nahiz prestakuntzako proiektuak	24.000 euro
Azokak	12.000 euro

PRESTAKUNTZA proiektuetarako, 1698/2005 Arauak (EB) ezartzen duenaren arabera, laguntza hauetan ez daude sartuta heziketa arautuko planak eta klaseak eta/edo bigarren mailako edo goi mailako programetako nahiz ohiko hezkuntza sistemetako klaseak.

Proiektu guztiak Europar Batasunaren funtsekin batera FINANTZATUKO dira % 55ean.

### 421 NEURRIA. - ERREGIOEN ARTEKO LANKIDETZA

Tokiko Ekintza Taldeen (TET) erregioen arteko lankidetzaren neurriak finantza ditzakeen ekintzek TET bakoitzaren toki garapenerako estrategietan sartuta egon beharko dute, eta LGPren 1., 2. eta 3. ardatzetako helburuekin izan beharko dute lotura.

### 431 NEURRIA. - TALDEAREN JARDUERA

1698/2005 Arauak (EB) ezartzen duenaren arabera, neurri honen asmoa da TETen funtzionamendu gastuak, eta gaitasunak eskuratzeko eta lurraldea sustatzeko gastuak ordaintzea.

## 10. Zein gastu EZ dira diruz lagungarriak?

Ezar daitezkeen Erkidegoaren arauak, eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak xedatutakoaren arabera, Ez dute diru-laguntzarik jasoko ondoko gastu hauek:

- > **a)** Makineria eta ekipoa eskuratzeko finantza errentamendua.
- > **b)** Bigarren eskuko ekipoa erostea.
- > **c)** Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legetik, 1698/2005 Europako Erregelamenduko 71. artikuluko a) ataleko 3. puntutik, eta Europako



Kontseiluaren 77/388 Seigarren Zuzentarauko 4. artikuluko 5. ataleko lehen paragrafitik

ondorioztatzen denaren arabera, BEZ eta/edo berreskura edo konpentsa daitezkeen zeharkako



zergak ordaintzera bideratutako gastuak.

- > **d)** Errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- > **e)** Interes zordunak eta ezkontideen eta lehen eta bigarren mailako familiakoen arteko ondasun transmisioak, transmisio prozedura edo modua edozein dela ere.
- > **f)** Eskaera aurkeztu aurretik egindako inbertsioak, proiektuen ordainsariak, bideragarritasun azterketak, eta eraikitze baimenekin eta patenteak eta lizentziak erostearekin lotura duten gastuak izan ezik, betiere 2007ko maiatzaren 7az geroztikoak badira, horixe baita Nafarroako Foru Erkidegoaren 2007-2013 Landa Garapenerako Programa onartzen duen Gobernu akordioaren data.
- > **g)** Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.
- > **h)** Esnearen edo esnekien antzeko edo ordeko produktuak fabrikatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak.
- > Nafarroako Kontratu Publikoiei buruzko 6/2006 Foru Legearen, eta/edo diru-laguntza publikoiei buruzko 11/2006 Foru Legearen arabera, onuradunak egiaztatu beharko du enpresa hornitzailearen aukeraketa eraginkortasun eta ekonomia irizpideak ezarrita egin dela. Diruz lagun daitekeen gastua



(obra-egikaritzeagatiko gastuari dagokionez) 30.000 eurotik gorakoa denean, edo 12.000 eurotik gorakoa denean (aholkularitza edo laguntza enpresek ondasunak hornitzeagatik edo zerbitzuak emateagatik), justifikazioa hiru

enpresa desberdinek egindako proposamenen bitartez eginen da, sustapen pribatukoak direnean, eta dagozkion bitartez entitate publikoak eta aipatu legeek behartzen dituzten beste edozein entitate direnean.



## 11. Bateriaezintasunak

Toki-garapenerako estrategietan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izan dira honako hauekin:

**1.** Merkatuen Antolamendu Bateratuaren barnean, edo LGPko 1. ardatzean (nekazaritza nahiz baso sektorearen lehiakortasuna areagotzea), 2. ardatzean (ingurumena eta landa eremua

hobetzea) nahiz 3. ardatzean (bizi-kalitatea landa eremuetan, eta landa eremuen ekonomia dibertsifikatzea) helburu berdinarekin emandako europar laguntzekin.

**2.** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen ondorio direnekin.

**3.** Xede berarekin Vianako Printzea - Kultura eta Turismo Departamentuak emandakoekin.

**4.** Xede berarekin Berrikuntza, Enpresak eta Enplegu Departamentuak emandakoekin, I+G+b-koak barne.

## 12. Zein dokumentu aurkeztu behar dira?

### ALDEZ AITZINETIK:

Diru-laguntzak eskartzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- > Eskaera (eskabidea egiteko eredu estandarizatu; paper euskarrian nahiz euskarri elektronikoan, kopia bat jaso daiteke Cederna Garalur Elkartearen).
- > Aurrekontua.
- > Honako hauek jasoko dituen oroitza-txostena: inbertsioaren edo jardueraren deskribapena, zonaldearen garapenean nola lagunduko duen erakutsiko duen deskribapena, egin beharreko gastuen aurrekontua, eta aurreikusitako ingurumen eragina.
- > Proiektuko ondasunen jabe dela, edo horiek erabiltzeko eta gozatzeko gaitasun legala duela bermatuko duen egiaztatze-agiria.
- > Proiektua burutzeko udalaren akordioa (toki entitateek).
- > Estatuko, Autonomia Erkidegoko nahiz udaleko beste erakundeetatik lortutako eta/edo eskatutako laguntzen aitorpena.
- > Enplegua sortzen edo dagoenari eusten diola bermatuko duen zinpeko aitorpena.
- > Laguntzak jaso nahi diren banku entitateko kontu zenbakira



transferentzia bidezko abonua egiteko eskaera.

- > Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 13. artikuluko 2. puntuan jasotako egoeraren batean ez dagoela ziurtatuko duen zinpeko aitorpena.
- > Enpresa hornitzailearen aukeraketa eraginkortasun eta ekonomia irizpideak ezarrita egin dela egiaztatuko duen zinpeko aitorpena.
- > Tokiko Ekintza Taldeak, hartu beharreko erabakia hartzeko, beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentu.

Espresuki finkatzen da inbertsioak honako dokumentu hauek aurkeztuta egiaztatuko direla:

- > Langile tekniko gaituak egindako proiektua (dagokion elkargoaren oniritziarekin), lagundutako ekintzak proiektu zibila eskatzen duenean.
- > Baimenak, izen-emateak eta erregistroak, eta/edo Erregio eta/edo Tokiko Administrazioak, egin beharreko hobekuntza nahiz jarduerarako, eska dezakeen beste edozein baldintza.

### Gerora:

#### 1. GASTUEN JUSTIFIKAZIO FAKTURAK:

Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeko 27. artikulua arabera, FAKTURAK nahitaez aurkeztu behar dira, eta horren erantzukizuna aitorpena egiten duenaren gain dago.

Gastuak fakturen, ordainagirien eta merkataritza trafiko juridikoan nahiz eraginkortasun administratiboan antzeko frogabalia duen beste edozein dokumenturen bitartez egiaztatuko dira. Ez dira onartuko eskura egindako ordainketak.

Gastuak faktura elektronikoen bitartez ere egiazta daitezke; betiere, zerga arloan onartuak izateko baldintzak betetzen badituzte.

Eraikuntzako fakturei dagokienez, obra unitateak eta horietako



bakoitzaren prezioa adierazi behar da derrigorrez.

Entregatu beharreko dokumentazioa originala eta kopia konpultsatua izanen dira.

Inbertsioak eskaera egiten den unetik beretik has daitezke, eta sekula ez kontratua sinatu eta ondorengo hiru hilabetetik aurrera, eta haste hori faktura bitartez frogatu beharko da.

## **2. EGINDAKO JARDUERAREN OROITZA TXOSTENA AURKEZTEA, ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO KONTZEPTUAK:**

OROITZA-TXOSTENak subentzioarekin finantzaturako jardueren eta kostuen aitorpena jaso beharko du, eta gastu bakoitzaren banakatzea erakutsi beharko du. Aipatu oroitza-txostena jarduera burutzeko ezarritako epea bete eta gehienez ere hiru hilabeteko epearen barnean aurkeztu beharko da.

## **3. LORTUTAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEN AITORPENA AURKEZTEA:**

Jarduerak subentzioaz gain, diru propioekin edo beste diru-

laguntzekin nahiz baliabideekin finantzatu direnean, diruz lagundutako jarduerara ekarritako fondoan zenbatekoa, diru hori nondik datorren eta zertan erabili den adierazi beharko da justifikazioan.

## **4. ZERGA BETEBEHARRETAN ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKO BETEBEHARRETAN EGUNEAN DAGOELA ERAKUSTEN DUEN ZIURTAGIRIA AURKEZTEA:**

Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela erakusten duen ziurtagiria, eta, hala badagokio, zerga aitorpen-likidazioa eta kotizazio buletinak.

## **5. PROGRAMAK ESKATZEN DUEN PUBLIZITATE BALDINTZA BETE DELA ERAKUSTEN DUEN EBIDENTZIA AURKEZTEA.**

## **6. NAFARROAKO KONTRATU PUBLIKOEI BURUZKO 6/2006 FORU LEGEAREN, ETA/EDO DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOEI BURUZKO 11/2006 FORU LEGEAREN ARABERA, ENPRESA HORNITZAILEAREN AUKERAKETA ERAGINKORTASUN ETA EKONOMIA IRIZPIDEAK EZARRITA EGIN**

## **DELA ERAKUSTEKO ERABILITAKO PROZEDURA AURKEZTEA.**

## **7. ERAKUNDE PUBLIKOEN EDO CEDERNA GARALUR ELKARTEAREN ONDORENGO KONTROLA:**

Ordainketak egin ondoren, neurriek jasotako baldintzak bermatze aldera, eta Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeko 39. artikulua araberako organo eskudunek egin dezaketen kontrol funtzioa betetzera nahiz beste edozein egiaztatze egitera derrigortuta dago onuraduna; bereziki, ikertu asmo diren lokaletarako eta dokumentaziorako sarbidea ematera, baita dokumentazio horren kopia egiten uztera ere.

Justifikatu beharra atal honetan ezarritako baldintzetan bete ezean, edo behar bezala ez justifikatzeak, Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legean jasotako ondorioak ekarriko ditu.

## **8. TOKIKO EKINTZA TALDEAK, HARTU BEHARREKO ERABAKIA ARRAZOITUZ HARTZEKO, BEHARREZKOTZAT JOTZEN DUEN BESTE EDOZEIN DOKUMENTU.**

# 13. Noiz aurkeztu behar dira eskaerak?

Laguntza-eskaerak aurkezteko epea deialdian bertan adieraziko da.

Urtero deialdiak egingen dira, eta horietan laguntzaren zenbatekoa, baremoa, eta baldintzak adieraziko dira.



# 14. Non aurkeztu behar dira eskaerak?

Oro har, Cederna Garalur Elkartearen esku-hartze eremuko garapen agentzietan aurkeztuko dira. Agentziekiko harremana honako helbideetan eta telefono-zenbakietan egingen da:

ESKUALDEAK	TGAren KOKAPENA	TELEFONO-FAXA	POSTA ELEK.
SAKANA Susana Mendinueta	CEDERNA GARALUR ELKARTEA Utzubar industrialdea, 8 ARBIZU	Tel: 948.567.010 Sakelakoa: 639.900.336	sakana@cederna.es
LEITZARAN-LARRAUN-ULTZAMA Elena Irigoien	Plazaolaren Geltokia LEKUNBERRI	Tel: 948.507.334 Sakelakoa: 617.609.328	lekunberri@cederna.es
BORTZIRIAK-MALERREKA-BERTIZARANA Arantza Arregi	CEDERNA GARALUR ELKARTEA Alkaiaga Industrialdea LESAKA	Tel: 948.625.122 Sakelakoa: 606.431.357	bidasoa@cederna.es
BAZTAN-URDAZUBI-ZUGARRAMURDI Izaskun Abril	Baztango Udala ELIZONDO	Tel: 948.580.561 Sakelakoa: 606.408.613	baztan@cederna.es
AEZKOA-ERROIBAR-AURITZ-ESTERIBAR- ORREAGA-LUZAIDE Eduarne De Miguel	ERROIBAR-AEZKOA- ESTERIBAR Erroibarko Udala Frantziarako errepidea, z/g 31696 LINTZOAIN (ERROIBAR)	Tel: 948.768.132 Sakelakoa: 639.905.357	erro-aezkoa@cederna.es
ERRONKARI-ZARAITZU-NABASKOZE Amaia Mauleon	Zaraitzuko Enpresa Zentroa Izize industrialdea IZIZE	Tel: 948.473.063 Sakelakoa: 639.905.290	roncal-salazar@cederna.es
AGOITZ-IRUNBERRI Carlos Garcia	Agoizko Udala AGOITZ	Tel: 948.336.337 Sakelakoa: 639.905.359	prepirineo@cederna.es
	Irunberriko Udala IRUNBERRI	Tel: 948.880.010 Sakelakoa: 639.905.359	
ZANGOZA Gabriela Orduna	Zangozako Udala Kale nagusia, 31 ZANGOZA	Tel: 948.430.560 Sakelakoa: 639.904.401	sanguesa@cederna.es
BESTE ESKUALDEAK ETA UDALERRIAK	CEDERNA GARALUR ANTSOAIN	Tel : 948.206.697	info@cederna.es

